

LAGUN BAT BIZIRAKO

Leire Perret, 13 urte

Angelu

Behin, Afrikako estatu batean, Malin, hamar urteko mutiko bat bizi zen. Familakoek haren beharrik ez zutelarik (etxean laguntzeko), uzten zuten noranahi joaiten. Mutiko honek Ali zuen izena. Ttikia, ile beltzekoa, ez zuen inoiz zapatarik ezartzen. Haurrak, zailtasunak zituzten jendeak laguntzea maite zuen, zaharrak, elbarrituak... denak. Jende horiek, ainitzetan, geltoki txiki batean aurkitzen zituen, zaku lodi batekin edo eskaile-rak igotzera entseiatzen.

Baina, egun hartan, Alik ikusi zuen emazte bat, bere adineko neska baten jotzen. Aski jo eta, emaztea joan zen; Ali neskarengana hurbildu zen. Bere izena erran eta berea galdegin zion.

– Baïcha deitzen naiz, ihardetsi zion.

Alik ikusi zuen, orduan, Baïcha itsua zela. Neskak, bere arropa zikinaren sakela batetik plater ttiki bat atera zuen eta beste batetik pankarta bat:

Sosa otoi,

Jateko

Eta bi gauza horiek bere aintzinean ezarri zituen. Alik, beraz, ulertu zuen emazteak eskean ibiltzera bortxatzen zuela dirua biltzeko.

– Baïcha?, galdegin zuen mutikoak kezkatu, nor da jo zaituen emaztea?

– Nire izeba da, Ali, eta jotzen nau dirua behar duelako eta uste duelako itsu batek ezin duela beste deus egin. Emazte hori gorrotagarria da, Ali, hartaz biziki beldur naiz!

– Berarekin bizi zara?, galdetu zion.

– Bai, nire ama hil zen ni munduan ezarriz eta gero aita gerlari bilakatu zen gizon anitz bezala eta gerla batera joan behar izan zuen. Ni etxean bakarrik utzi ordez nire izebaren eskuetan utzi ninduen. Orain askotan aitari pentsatzen dut eta hari buruz mintzatzeko naizelarik, izebak erraiten du gelditzeko, hila dela.

Baïchari bere aitaren istorioa kontatzerakoan begietan malkoak agertu zitzaizkion. Bere baitan segur zen, bere aita oraindik bizi zela. Alik ikusi zituen malkoak eta galdegin zion zergatik ari zen negarrez. Baïchak bere belaunak eskuetan hartu zituen eta hasi zen erraiten zer pentsatzen zuen. Bukatu eta Alik erran zuen:

– Badakizu, nik ere uste dut zure aita ez dela hila eta nahi baduzu berriz atzematen lagunduko zaitut.

– Ali, biziki gisakoa zara, baina Bobok du jakiten ahal non gordetzen den! Eta biziki urrun bizi da.

– Badakit treina hartzen.

– Baina...

– Bai, Baïcha, treina hartuko dugu. Bihar, goizean goiz, berriz hemen elkartuko gara. Orain, bar-katu, baina joan beharra dut, amak itxaroten nau etxean. Adio!

– Adio, Ali, bihar arte!

Mutikoa joan zen. Bidean, galdera ainitz sortu zitzaizkion. Nola hartu treina? Ez zuen dirurik txartelak hartzeko. Baina, harten bazuten, atzemaiten ahalko ote zuten Bobo? Eta ez bazen gehiago bizi? Ez bazen oraindik hil, errango ote zien non zen neskaren aita? Ali entseatu zen galdera trabagarri horiek goma imajinatu batekin ezabatzeraz, baina ez zuen lortu. Bere amak galdetu zion ongi zenentz eta mutikoak baietz erran zion, nahiz eta xuri xuri izan. Afaldu ondoren ohera joan zen.

Goizean goiz, lehenbailehen jeiki zen ama laguntzeko eta baita ere geltokira berriz joateko. Sukaldean izan orduko, amak baxera egiteko galdegin zion eta bera jantziak garbitzera joan zen. Mutikoa presatua zen geltokira joateko, beraz, harrikoa ongi eta fite egin zuen. Leihotik begiratu zuen eta bere ama ikusi zuen jantziak garbitzen. Oraino denbora bazuen janari pixka bat hartzeko. Poltsa bat hartu zuen eta barnean fruituak ezarri. Kanpora joan zen eta bere amari galdegin zion oraindik laguntza behar zuenentz. Amak ezetz erran zion eta kanpora joaiten ahal zela. Etxetxotik atera eta karrikan korrika hasi zen. Geltokira iritsi zen eta itsua ikusi zuen berriz ere emaztearekin. Baina neskaren izeba fite joan zen. Ali neska-rengana joan zen:

- Horra, hor naiz!, erran zuen afrikano ttipiak
- Egunon, Ali!
- Janari pixka bat hartu dut bidaiarako.
- Ederki. Goazen, bada!

Alik, Baïcharen eskua hartu zuen eta trenerantz joan zen. Baina treinararen atearen ondoan urdinez jantzitako gizon bat bazen. Alik eta Baïchak itxaron behar zuten. Mutikoak bazekien minutuak eta orduak pasatzen ahal zirela. Baina, ideia bat ukan zuen. Bi haurrak eskutik helduta emazte baten gibelean ezarri ziren. Hau trenerantz abiatu zen eta treinerara igo zen segitua zela batere susmatu gabe. Mutikoak eta neskak bere haurrak bezala segitzen zuten eta treinean bi toki libre ikusi zituen Alik. Baïchak orduan ezti-eztiki erran zion:

- Milesker.

Orduak pasatu ziren eta jan zuten. Baina momentu batean treina gelditu zen. Bi lagunak atera ziren eta Alik galdetu zuen:

– Nolakoa da Boboren etxea? O! Barkatu? ahan-tzi nuen itsua zinela!

– Ez dio axolarik, gainera ttikia nintzelarik ikusten ahal nuen. Aztiaren etxea horixka da eta teilatua lastoz egina.

Hala bada, Ali, ibiltzen hasi zen Baïcharen larrua beti hunkituz. Eta aztiaren etxea ikusi zuen. Haruntz joan zen eta atean jo zuen; emazte xarmagari batek ideki zien.

- Baïcha! Ene Baïcha kuttuna! Ongi zaude?
- Ongi, ongi.
- Zer egiten duzu hemen?

– Boboren ikustera jin naiz aita non den jakiteko eta Alik lagundu nau!

– Egunon, erran zuek Alik lotsati.

Emazteak barnera sartzeko erran zien eta kafetxo bat eskaini zien. Alik orduan gehiago ezagutu zuen eta jakin zuen Botanika zuela izena. «Zer izen ederra...», pentsatu zuen. Bobo, aldiz, ez zuen oraindik ezagutzen. Baïchak liluratua zirudien eta galdegin zuen non zen azti zaharra. Emazteak, bere gelan zela erran zuen, baina ez zela gogaitu behar. Neskak, orduan, irritxo bat egin zuen; dena ulertu zuen. Alik, ordea, ez zuen tutik ulertu eta beldur zen galdegitea emaztearen aitzonean. Baina momentu batean emakumeak erran zion neskatilari:

– Baïcha nik laguntzen ahal zaituztet; badakit bihar gauean gizon batzuk joaiten direla kafea eta fruituak ekartzera gerlariei. Berdin egiten ahalko duzue nahi baduzue. Sotoan kafe zaku ainitz badi-tut.

– Eta bidea? Nola jakingo dugu bidea? Bobo ez da gurekin!

– Nik badakit bidea, nere sei anaiek erakutsi didate espres egin gabe!, irri egin zuen Botanikak, baina ezingo naiz zuekin joan, etxean lan anitz dut. Esango dizuet. Aizu Baïcha, entzuten nauzu?

Baïcha ametsetan zen, arratsalde honetan, bazekien azti zaharrak egiten zuena eta berarentzat opari handi bat izanen zen. Baina ez zekien oraindik bere aita bizi zenentz eta bakarrik Bobok erraiten ahal zion hori. Botanikak deitu eta iratzarri egin zen bere amets guziak desegiten zirelarik:

- E? Zeeeeeeeer???
- Bidea badakidala erran dizut! Eta ez naizela zuekin etorriko.
- Erran ezazu bidea, beraz, erran zion Alik Botanikari.
- Oihanera joan behar da eta Baobab arbolaren goroldioa segituz zuzen joan behar da. Momentu batean zilo bat ikusiko duzue A! Ez! Barkatu, ez duzue ikusiko, gordea baita, gainetik, adarrak, hostoak eta lore handi bakar bat dago. Barnera sartu eta gerlariak atzemanen dituzue.
- Milesker Botanika! Gaur gauean joango gara!, oihu egin zuen neskatoak
- Gaur, gauean ez, neska! Ilargi betea da eta zeruko jauna jeikiko da!
- Zeruko jauna ez zen zerukoa, ez, baina otsoa zen. Afrikar guziak hartaz beldur ziren handia, grisa, eta hortz biziki zorrotzak zituelako. Lehen, afrikarrek erraiten zuten otsoak haur txintxoak bakarrik jaten zituela. Eta leienda hori afrikar guzien buruetan gelditu zen.
- Ongi, ongi, bihar joango gara, orduan, Alik.
- Emazteak gela bat prestatu zuen, bi haurrentzat, lo egin zezaten.
- Biharamun goizean, Alik galdegin zuen Bobok zer egiten zuen, baina Baïchak ez zion erantzun; ustekabea izanen zen! Prestatu behar ziren eta hori luzea izanen zen. Etxola barnean zaku anitz ziren eta sobera izanen zen bi lagunentzat, beraz, azke-nean bakoetak zaku bana hartu zuen. Orduak eta orduak pasatzen ari zirela, mutikoak presatuago eta beldurtuago zirudien.

Gaua etorri zen eta joan egin behar ziren. Oihanerantz joan ziren eta arbolen arteko pasaiak hertsitzen ari ziren. Ali beldurtzen hasi zen. Bazuen itsu bat bere gain hartzeko eta hiltzen bazen, bere hutsa izanzen zen. Oihan barru barruan ziren eta ilargiak ez zuen gehiago deus argitzen. Mutikoak, orduan, itzal bat ikusi zuen arbolen artean mugitzen. Lasaitasuna atzeman ezinik arbola baten kontra jarri zen neskari erranez:

– Otoi, jarri eta ez mugi!

Erran eta egin, Baïcha jarri zen, baina galdegin zuen:

– Zer gertatzen da?

– Jende batzuk ikusten ditut eta ez dut oraindik ikusi Baobab zuhaitza edo bestenez huts egin dut, biziki ilun da...

Alik ez zuen astirik izan bere esaldia bukatzeko. Urrunean, tiro bat entzun zuen. Eta beste bat, tirokada bat hasi zen eta hamar minutu barru isiltasuna. Bat-batean Alik ikusi zuen itzal bat bere aitzi-nean harengana hurbiltzen. Beldurturik ezin zuen gehiago hantsa hartu. Itzalak iduri zuen gizon bat. Gizon handi bat ilerik gabekoa. Alik, pixka bat lasaiturik, baina ez arras, ikusi zuen gizonak jantzi pizuak ekartzen zituela. Baina, momentu batean... BUM!! Gizona hunkitua izan zen eta erori aitzin mutikoak Baïcha pusatzeko denbora ukan zuen. Eta hor beste norbait agertu zen.

– Baïcha?

Ali segur zen gizon bat zela, baina, nola zekien bere lagunaren izena? Baïcharen aita ote zen? Ez zen segur, baina hala ere galdegin zion:

– Nor... da... hor?, beldurtu zen.
– Kanton deitzen naiz.
– Aita? Baïcharen ahoa ideki zen.
– Baïcha! Segur nintzen atzemango ninduzula!
Zer kontent naizen zu berriz ikusteaz!

Kanton eta Baïchak elgar besarkatu zuten.

– Ni, aita, kontent naiz zu berriz... entzuteaz!

Eta aita-alabak irriz hasi ziren. Eta Ali? Ahanzten ote zuten? Ez, beti bere xokoan zen eta harritia. Momentu hartan berean, ohartu zen, bere matelan malko tiki bat irristatzen ari zela haur bat irrista-gailuan bezala. Baina, malko hori ez zen tristurazko malko bat baizik eta zirrara handiko malko bat.

– Aizu, Baïcha nor da mutiko hori?

– Geltokian elkartu gara eta berak nau lagundu zu berriz atzemaiten. Ali deitzen da eta nere lagun hoberena da. Uste dut lagunak bizirako izango garela.

Aliri «bai, bai» ahul bat atera zitzaion. Eta eguzkia agertzen zela ohartu zen. Orduan, bere baitan pentsatu zuen «lasai izan behar naiz, ausarki mintzatzeko». Hori pentsatu zuen eta pixka bat azkarago sentitzen zen.

– Nire amaaaa! Nire ama ahantziko nuen!, oihu egin zuen mutikoak.

– Lasai, Ali, erran zuen gizon handiak, zure etxera eramango zaitugu, baina lehenik... Boboren etxerat!

– Horixe, egia!, ihardetsi zion Baïchak.

Zer egitera? Alik ez zekien, baina bere iritziz Botanika eskertuko zuten. Han, aztia, xuriz jantzita

zegoen hondar zakutxo batekin. Zaharrak, beraz, erran zuen ahotsa dardaran:

– A! Baïcha! Itxaroten zintudan!

Eta hor gauza miresgarri bat gertatu zen: gizon zaharrak Baïcharen begi xurietan hondar pixka bat ezarri zuen. Ke apur bat atera zen eta Alik, Baïcharen «egiazko» begiak ikusi zituen. Beltzak ziren eta argi sorta batekin begi horiek politago bilakatu ziren.

Kantonek eta Baïchak ondoren, berriz treina hartu zuten, Ali bere etxera eramaiteko. Etxe aintzinean izan eta Baïchak galdegin zion:

– Lagunak bizirako, ezta?

– Bai, erantzun zuen leialki mutikoak.

Neskak, orduan, muxu bat eman zion matelan...